AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5299

329/2012 EBAZPENA, azaroaren 9koa, Bilbo Eskualdeko zuzendari gerentearena. Honen bidez, M.ª Teresa Jiménez Pérez andreari esleitzen zaizkio Bilbo Eskualdeko Etxaniz Suhiltzaileko Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak.

Bilbo Eskualdeko zuzendari gerentearen uztailaren 16ko 246/2012 Ebazpenaren bidez, Bilbo Eskualdeko Etxaniz Suhiltzaileko Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren lanpostua betetzeko deialdia argitaratzea onartu zen.

Aurkeztutako eskabidea, eta, halaber, alegatutako merituak egiaztatzeko agiriak azterturik, eta indarrean dagoen legeriaren arabera, Zuzendaritza-Gerentzia honek dituen eskumenez baliatuaz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– M.ª Teresa Jiménez Pérez andreari esleitzea Bilbo Eskualdeko Etxaniz Suhiltzaileko Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak.

Bigarrena.– M.ª Teresa Jiménez Pérez andreak kudeaketa eta asistentzia funtzioak beteko ditu, biak batera Bilbo Eskualdeko Etxaniz Suhiltzaileko osasun-zentroan, Osasun Eskualdeko gerentearen mendean zuzenean eta hierarkikoki. Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak betetzen dituen bitartean nahiz eginkizun horiek amaitzean bere kategoriako plazaren jabetza mantenduko du, eta plaza horretako oinarrizko eginkizunak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren funtzioak edo ordainsariak finkatzerik, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Funtzio horiek betetzen dituen bitartean, ardura bereziaren osagarria kobratuko du M.ª Teresa Jiménez Pérez andreak. Osagarri hori 3/1987 Errege Lege Dekretuak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuta dago; zenbatekoa eta ezaugarriak, berriz, uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean daude ezarrita.

Bosgarrena.– Ebazpen honek azaroaren 9tik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bilbao, 2012ko azaroaren 9a.

Bilbo Eskualdeko zuzendari gerentea,
JESÚS M.ª LARRAÑAGA GARITANO.